

ESKOLAKO AGENDA 2030 ARRASATEN



11 HIRI ETA KOMUNITATE
JASANGARRIAK



hiri eta komunitate jasangarriak

IKASLEEN ONDORIOAK, PROPOSAMENAK
ETA KONPROMISOAK

Udalako Ingurumen Eskola
2022ko ekaina

Arratsalde on!!!

Gaur hemen gaudenok ikasleak gara Arrasateko Herri Eskolan, Institutuan eta Arizmendi ikastolan. Ikastetxe hauetako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 2030 lantzen.

Eskolako Agenda 2030aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean eta gure esku dagoena egiten.

2015.urtean egin zen Garapen jasangarriari buruzko Goi bileran, Nazio Batuen Elkarteko 2030erako Garapen Jasangarrirako Agenda onartu zuten. Horrek Garapen Jasangarrirako 17 helburu biltzen ditu, pobrezia deuseztatzeko, desberdintasuna eta injustiziaren kontra borrokatzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko.

Urte asko Eskola Agenda 21 proiektua lantzen eman ondoren, pasa den ikasturtean hasi ginen Eskola Agenda 2030 proiektuarekin eta ikasturte honetan, bereziki, 11.helburua landu dugu: "Hiri eta komunitate jasangarriak".

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan, bai Ingurumen Eskolan, bai herriko hainbat txokoetan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa, hemen zerrendatzen ditugu batzuk:

- Garapen Iraunkorreko 17 helburuak ezagutu eta landu ditugu bideo eta erruletaren eskulanaren bitartez.
- Udala inguruko natur eta kultur ondarea ezagutu ditugu; elurzuloa, karobiak eta bertako basoak.
- Udalako arteen eta haritzen ezkurak erein ditugu naturaren zatitxo bat Arrasatera eramateko.




- Herrian daukagun berdegune garrantzitsu bat, Monterron, desagertzeak eta bere lekuan etxebizitzak eraikitzeak herrian sor lezakeen egoera imajinatu dugu simulazio jolasaren bitartez.
- Gure eskuekin ogia egin dugu eta papera birziklatu dugu.
- Arrasateko pinu eta eukalipto landaketak aztertu ditugu. Ikusi dugu zein den baso eta egur landaketa baten arteko desberdintasuna.



- Arrasateko Udalak natura babesteko egindako proiektuak ezagutu ditugu: Antoniñako istinga eta Hidal gobasoko hariztia, adibidez.
- Montzongo koba eta Urzuloko iturburura bisita egin dugu, Udalaitzeko lur azpiko uren dinamika eta hauen arazoak lantzeko.
- Gure ikastetxeetan, plastikorik gabeko astea ospatu dugu, energia motak landu ditugu eta ibai eta basoko ekosistemak aztertu ditugu.

- Aztertu dugu ea herria inklusiboa den, erresilientea, segurua eta jasangarria, arreta jarritz mugitzeko eran, auzo-konpostagailuetan, garbigunean, ibaian eta ortuetan.
- EMAUS EcoCenter bisitatu dugu eta bertan ikusi dugu zein garrantzitsua den produktuak berrerabili eta bigarren bizitza bat ematea.
- Garagartzako ortu komunitarioak landu ditugu eta bertan barazkien hazi desberdinak erein ditugu. Ikasi dugu, herri bat jasangarria izateko oso garrantzitsua dela bertan janaria ekoiztea eta bertako produktuak kontsumitzea..



Ikasle guztiok hartu dugu parte orain aurkeztuko dizkizuegun ondorio, proposamen eta konpromisoak prestatzen:

- Bizi garen herriko airearen kalitateak eta bertan daukagun hondakin kopuruak zuzenean eragiten dute gure osasunean. Aireak kutsatzen duten hainbat puntu identifikatu ditugu (kotxeak, etxeak eta fabrikak gehienbat) eta herrian zehar dagoen zaborra zenbait dugu. Ohartu gara, lurrean zein errekan zabor asko dagoela eta honek kalte egiten digula bai guri eta baita naturari ere. Hauek dira lurrean gehien aurkitu ditugun zaborrak: zigarroak, txikleak eta erabilera bakarreko plastikoak.
- Herritarrak asko mugitzen gara herri batetik bestera lanera, eskolara, erosketak egitera edo medikuarengana joateko, adibidez. Herriko mugikortasuna aztertzeko egin ditugun behaketetan ikusi dugu askotan kotxean pertsona bakarra joaten dela eta autobusak erdi hutsik joaten direla. Jokamolde hauek kalteak sortzen dizkiote gure herriari: airea kutsatzen da, zarata handia egoten da eta gainera, arriskua ere handia da. Ikasturtean zehar ondorioztatu dugu badaudela autoa baino garraio jasangarriagoak.



- Arrasate bizitzeko herri on bat izateko, hainbat baldintza bete behar ditu, adibidez, herrian natura izatea oso garrantzitsua da. Ohartu gara gure herria naturaz inguratuta dagoela baina herri barruan berdegune gutxi ditugula iruditzen zaigu. Gainera, kaleetan zuhaitz gutxi dago eta gehienak oso gazteak dira. Naturarekin kontaktua behar dugu, zementu gutxiago eta zuhaitz eta zelai gehiago. Jolastu nahi dugu Naturan.
- Pertsona guztiok daukagu etxebizitza eta bizitzeko herri on bat izateko eskubidea. Ikusi dugu Arrasaten etxe berri asko ari direla eraikitzen eta gainera, eraikita dauden etxe askotan ez da inor bizi.

Gure proposamenak hauek dira

Etxebitzizaren egoeraren aurrean:

1. Etxebizitzen prezioa mugatzea, pertsona guztiek etxe bat erosteko aukera izan dezaten.
2. Udalak laguntzak eman ditzake etxeak alokatzeko.
3. Etxe gehiago egin behar izanez gero, hauek natura kaltetuko ez dugun toki batean eraikiko ditugula ziurtatzea (adibidez, lehen fabrika zahar bat zegoen tokian).

Natur eta kultur ondarea zaintzeko:

4. Zuhaitz motzak babestea.
5. Egur landaketak mugatu eta bertako basoa bultzatzea.
6. Elurzuloak eta karobiak garbitu eta txukuntzea herritarrok ondo ikus ditzagun.



Mugikortasunari dagokionez:

7. Garraio publikoa hobetu eta sustatzea.
8. Herri barruko bide batzuk oinezkoen kale bihurtzen jarraitzea.
9. Haur eta gazteentzako ekipamenduak dauden kaleetatik kotxeak kentzen saiatzea.
10. Oinezkoentzako eta gurpidul aulkientzako espaloi asko estuak dira, arazo hau konpontzea eskatzen dugu.
11. Bidegorri gehiago eraikitzea, daudenak elkarrekin lotzeko.
12. Toki aldapatsuetan igogailuak jartzen jarraitzea.
13. Europako hiriburu askok bezala patinete elektrikoak edo bizikletak denon eskura jartzea.



Berdegunek zaintzeko:

14. Kaleko zuhaitz zaharrik ez moztu ezinbestekoa ez bada eta herrian zehar zehar zelaitxoak sortzea.
15. Monterron parkea egokitu guztiok goiko aldera iritsi ahal izateko.
16. Erdigunetik gertuago ortu komunitario gehiago ea jarri daitezkeen aztertzea.
17. Auzo guztietan estalitako jolastokiak eraikitzea.
18. Berdegune askotan txakur kakak ez egoteko neurriak hartzea.



Hondakinen arazoarekin lotuta: :

19. Zakarrontzi gehiago jartzea jendeak zaborra lurrera botatzen ez dezan.
20. Erreka garbiketarako antolatzea eta erreka ertzeko barandan sareak jartzea, zailagoa izan dadin haizearen bitartez zaborra bertaraino heltzea.

Gure aldetik prest gaude konpromiso hauek hartzeko:

- Natura zaindu eta errespetatuko dugu.
- Gure familiekin modu jasangarrian mugitzen ahaleginduko gara; garraio publikoan edo bizikletaz posible denean.
- Gure kaleak eta naturguneak garbi mantenduko ditugu: ez dugu zaborrik botako eta ikusten duguna jaso egingo dugu.
- Erreka garbiketa eta zuhaitz egunetan parte hartuko dugu.
- Zaborra ondo sailkatuko dugu eta gure familiak konposta egitera animatuko ditugu.
- Erabilera bakarreko plastikoak ahalik eta gutxien erosiko ditugu.



Bukatzeko,

Argi dugu bizitzeko herri jasangarri eta atsegin bat nahi dugula eta horretan prest gaude laguntzeko. Arrasate herri atsegina da jadanik, baina, konturatu gara denon artean gauza asko daudela hobetzeko.

Hurrengo urteetan ere gure lanean jarraituko dugu. Espero dugu gure ekarpenak lagungarriak izatea.

ESKERRIK ASKO!!